

Data: Uztailak 3, larunbata

10.00 – 13.00 Jauziak oinarri teorikoak eta saio praktikoa.

15.00 – 18.00 Jauziak oinarri teorikoak eta saio praktikoa.

Lekua: Dantzagunea

(Arteleku -Kristobaldegi, 14. Txomin Enea, Donostia)

Ikastaroaren prezioa: 25€

Izena emateko epea: Ekainak 21

Dantza-jauziak, oinarriak eta estiloak

Claude Iruretagoiena eta Xabier Itzaina

Dantza-jauziak

Dantza-jauzien berpizkundera azken hamarkadetan euskal dantzetan gertatu den gertakari nabarmenenetakoa bat da. Dantza-jauzien ezagutzan sakontzeko aukera izango da Claude Iruretagoiena eta Xabier Itzainaren eskutik ikastaro honetan. Saio teorikoak eta praktikoa tartekatuz, jauzien testuinguru historikoa, sistematika eta estilo desberdinetara hurbiltzeko modua izango da.

Claude Iruretagoienak zirkuluan egindako dantzek Berpizkundetik aurrera izan duten bilakaera aztertuko du, besteak beste branleak, urratsak eta apaindurak, jauziak eta borobila, zirkulu barruko desafioak, eta kadrileak ekarritako zirkuluen hausturaren berri emanez. Dantza-jauzien ezaugarriak, ikasketa, egitura, estiloak eta lehiaketak aipatu ondoren, azken urteotako bilakaera aztertuko du Iruretagoienak, zabalkundera, sorkuntza eta egoerari so eginez. Saio praktikoa ikasteko jauziak, jauzien errepertorioa, geografia eta estiloak, zirkulua erakiko jarrera, eta desafioak landuko dira.

Xabier Itzainak bere aurkezpenean jauziak noiz eta nola ematen ziren, jauzien desafioen inguruko xehetasunak eta XX. Mendeko aldatetako aztertuko ditu. Saio praktikoa oinarriko pikoak, hainbat estilo desberdin, hala nola Garazi-Baigorrikoa, Lapurdi barnekalde eta Arberuakoa, Amikuzekoa erakutsiko ditu, eta adibide zehatz batzuk aurkeztuko ditu, dantza-jauziak, gabota, bolant-dantza, kaxkarot-martxa eta dantza-korda besteak beste.

Claude Iruretagoiena (Baiona, 1960)

Betti Beteluren ikaslea, Juan Antonio Urbeltz-ekin sakondu zuen irakaskuntza, eszenaratzeko eta koreografia tekniketan. Zortziko eta Alakiketan ikuskizunetan parte hartu zuen, eta 1992an bere lehen lana, Xirula Mirula plazaratu zuen. Eskualde desberdinetako dantza-maisuekin euskal dantza tradizionalaren errepertorioaren ezagutzan sakondu zuen. Horrekin batera, Bearneko branleak, scottish, polkak edota Gaskuñako dantzak ikasi zituen. 1995ean Pier Pol Berzaitz-ek sortutako "Elkanoren semeak" ikuskizun musikala eszenaratu eta koreografiatu zuen. Suitzako Nomades-Le Loft Vevey konpainiarekin "Courrier du Pacifique" ikusgarria landu zuen. Jantzi tradizionalak eta historikoak egiten ditu Irulea elkartearen baitan. Hamaika ikastaro eman ditu eta EDBren dantza irakaslea izana da. Besteak beste Argia-Ikerfolk, Malandain Ballet Biarritz, Biarritz Culture, Garazikus, Institut Culturel du Pays Basque eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarrekin egin ditu lankidetzak. Berak zuzentzen duen Maritzuli konpainiarekin hainbat ikuskizun taularatu ditu: Ixtorio Mixtorio (1996), Ingura Mingura (2000), Côté Cour... Côté Jardin... (2004), Kutx ala Pil? (2005), Aurrez aurre (2009).



Xabier Itzaina (Itsasu, 1971)

1971an sortua, Itsasuarra, ofizioz ikerle Bordenaleko unibertsitatean. Ttipitik ari izana da dantzari, xirulari eta txistulari gisa Itsasuko multxoan, eta aintzina segitzen du artetan dantzarien trebatzen eta soinu jotzen. Uztaritzen ere ari izana da dantzan garai batez. 1980 urte undarretan hasi da Lapurdi eta Baxenabarreko dantza ohiduren miatzen. Besten (ihauteri, Besta Berri, tobera mustra, kabalkada, eliza-besta) azterketa historiko eta antropologikoak egin ditu. Lapurdi barnekalde eta Baxenabarre hurbileko lehenagoko dantzari, dantza erakasle eta soinulari zonbeiten gandik bildu ditu xehetasun ainitz, bereziki dantza jauzietan buruz, Xiberun eta Baztanen ibili da jauzi, puntu eta mutil dantzen ikasten. C. Iruretagoienaren "Xirula mirula" eta "Ixtorio mixtorio" ikusgarrietan parte hartu du soinulari bezala. Elaudi folk taldean ari izana da gitarra, xirula eta tuntunarekin. Parte hartu du antolatzaile edo soinulari bezala Itsasu, Luhuso, Lekorne eta Heletako kabalkadetan. Musikari bezala, herri andana batean ibilia da jauzi eta bertze dantzen jotzen. Itsasun berean, kaxkarotak eta ihauteriak berriz abiarazi dituzten taldean zen 1980 urte undarretan, eta Besta berri eta herriko pestetako dantzen usaia atxikitzen bermatzen da.

Betebeharrak

- Gutxieneko adina: 16 urte.
- Dantzari eskarmentua izatea.
- Leku mugatua. Antolatzailearen esku geratzen da onarpen eskubidea. Dantza irakasleek izango dute lehentasuna.

Izen-ematea

Bidali mezu bat ikasi@dantzan.com helbidera honako datu hauekin:

■ Aurreko ikastaroaren batean parte hartu baduzu:

- Izen-abizenak
- Zein ikastarotan eman nahi duzun izena

■ Dantzan Ikasi-ren ikastaroetan parte hartzen duzun lehen aldia bada:

- Izen-abizenak
- Jaioturtea
- Tfnoa.
- Emaila
- Helbidea
- Herria
- Posta-kodea
- NAN zenbakia
- Zure dantzari jarduera zein den adierazi.
- Dantza irakaslea bazara non diharduzun adierazi.
- Zein ikastarotan eman nahi duzun izena.

- **Dantzan Ikasi** Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimena da. Dantzan.com elkarte arduratzen da egitasmoaren kudeaketa teknikoaz. Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzara eta Ikerfolk elkarteek gainbegiratzeko proiektuaren ibilbidea Dantzan Ikasi-ren Jarraipen Batzordetik.

Dantzan Ikasi
www.dantzanikasi.com
ikasi@dantzan.com
Tfnoa. 943 53 04 40
513 Posta Kutxatila
20600 Eibar

Kultura sustapen eta hedapeneko zuzendaritza
www.gipuzkoakultura.net
Koldo Mitxelena kulturunea
Tfnoa. 943 11 28 91
Urdaneta, 9 · 20006 Donostia-San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera



Dantzan Ikasi

apirila 3 2010

- © Ikastaroak
- © Mintegiak
- © Tailer teorikoak eta praktikoa
- © Cursos
- © Seminarios
- © Talleres teóricos y prácticos

Dantza irakasleak ikasteko gogoz



Ikastaro eskaintza berri batekin dator **Dantzan Ikasi**. Arabako Errioxako dantzak, gorputzaren prestaketan laguntzeko ikastaro bat eta dantza-jauziak sakon ezagutzeko aukera emango digun mintegi bat. Gipuzkoako Diputazioak dantza tradizionalaren formakuntzan laguntzeko ahaleginarekin aurrera egitea erabaki du, eta **Gipuzkoako EDB, Ikerfolk** eta **dantzan.com-en** lankidetzarekin **Dantzan Ikasi**-ren bigarren ikasturtea dator.

2009an Gipuzkoan dantza tradizionalaren alorrean irakasten diharduten dantzari eta irakasleen berri jasotzeko lan bat burutu genuen: zein prestakuntza duzuen, noiz eta norekin ikasi duzuen, zein baldintzatan ari zireten dantzaren irakaskuntzan, eta zein hutsune eta behar antzematen dituzuen zuen prestakuntzan jakin nahi genuen. Erantzuna bikaina izan da. 150 lagunek erantzun diozue inkestari eta emailta interesgarriak ekarri ditu. Txosten osoa denon eskura jarriko dugu baina lerrootan aurrerapen txiki bat egin nahi dizuegu.

Inkesta erantzun duten 150 dantzari eta irakasleek 6.500 ikasle dituzte beren eskolak jasotzen eta 650 dantza ordu egiten dituzte astean. Batz-beste 27 urte ditu Gipuzkoan gaur dantza tradizionala irakasten ari denak, baina aipagarria da ia erdiak (%47) 23 urtetik behera dituela. Multzo handi batek (%48) astean ordu bete edo gehienez bi ordu dantza-eskola ematen ditu, baina %12k astean 10 ordutik gorako lan-karga du dantza eskolak ematen. Irakasleen erdiak dirua jasotzen du dantza irakastearen truke, eta 20 kasutan kontratu bidez lotuta dute harremana.

Dantza formazioari dagokionez, irakasleen %73k beren taldean, herrian edo eskualdean bertan jaso dute formazio osoa, eta beraz, ez dute hortik kanpo ikastera jo. Gipuzkoako dantzak, Bizkaiko dantzak eta Zuberoako dantzak dira gehien ezagutzen diren errepertorioak. Lautik hiruk (%75) dantza irakasle aritzeko bere burua formazioz herren sentitzen du, eta ikastaroak egiteko prest ageri da hutsune horiek osatzen joateko.

Zer ikasi? Irakasleen ustez, ikasteko asko dutenez, edozein aukera ongi-etorria da. Dantza irakasleen formakuntza integral bat behar dela antzematen da. Eta hori bermatuko duen titulazio baten beharra aldarrikatzen du hainbatek. Errepertorioa zabaldu eta sakondu nahiko lukete askok. Dantza pedagogiak kezka asko eragiten ditu: nola irakatsi... Eta dantzen alde praktikoaren aldean, alde teorikoarekin gabezia handiak dituztela aitortzen dute irakasleek. Dantza egiteko prestakuntza fisikoa eta teknikoaren garrantziak ohartuta daude irakasleak, eta prestakuntza hori areagotu ahal izateko ikastaroak eskatu dituzte.

3 Dantzan Ikasi



Los profesores de danza quieren formarse

Dantzan Ikasi presenta una nueva oferta formativa: **danzas de la Rioja alavesa, un taller sobre la formación física para la danza, y un seminario para conocer a fondo el mundo de los jauziak**. La Diputación de Gipuzkoa ha confirmado su voluntad de seguir impulsando la formación en danza tradicional, y en colaboración de EDB de Gipuzkoa, Ikerfolk y **dantzan.com**, llega esta segunda edición de **Dantzan Ikasi**.

En 2009 **Dantzan Ikasi** realizó un estudio para conocer más de cerca la realidad de los dantzaris y profesores de danza tradicional en Gipuzkoa. Queríamos conocer detalles sobre vuestra formación, qué y con quién habéis aprendido, en qué condiciones desarrolláis vuestro trabajo de enseñanza de danza, qué carencias y necesidades detectáis en vuestra formación, etc. La respuesta ha sido muy positiva. 150 dantzaris y profesores respondisteis a nuestro cuestionario y los resultados son muy interesantes. El informe completo estará a disposición de todos, pero en estas líneas queremos adelantaros algunas conclusiones.

Los 150 dantzaris y profesores que han respondido la encuesta imparten danza a cerca de 6.500 alumnos en 650 horas de danza que se desarrollan cada semana en Gipuzkoa. La media de edad del profesor de danza tradicional en Gipuzkoa es de 27 años, pero es de reseñar que casi la mitad (47%) tiene menos de 23 años. Gran parte de los profesores (48%) dedican una o dos horas semanales a la enseñanza de danza, pero para el 12% se trata de una actividad a la que dedican más de 10 horas semanales. La mitad de los profesores recibe una compensación económica por su enseñanza, y en 20 de los casos estudiados, esta relación está regulada a través de un contrato.

Respecto a la formación, el 73% de los profesores ha realizado todo su aprendizaje en su propio grupo, localidad o comarca, y por tanto no ha salido de su ámbito para formarse. Los repertorios que más se conocen son danzas de Gipuzkoa, danzas de Bizkaia y danzas de Zuberoa. Tres cuartas partes (75%) de los profesores reconocen que tienen carencias para desarrollar su actividad docente y se muestran dispuestos a participar en cursos para completar su formación.

En opinión de los profesores, es mucho lo que tienen para aprender, por lo que toda oferta formativa es bienvenida. Algunos consideran que hace falta una titulación que garantice esa formación. Muchos desean ampliar el repertorio y profundizar en su conocimiento. La pedagogía de la danza, el “cómo” es motivo de preocupación e interés. Y es frecuente también la sensación de que las deficiencias en formación teórica son más graves que el conocimiento práctico de las danzas. Algunos profesores están concienciados en la importancia de una buena preparación física y técnica para la danza, y han solicitado cursos en esa dirección.

Data: Maiatzak 15
Orduetgia: 9:30 – 13.30
Lekua: Dantzagunea
(Arteleku -Kristobaldegi, 14. Txomin Enea, Donostia)
Ikastaroaren prezioa: 15€
Izena emateko epea: Maiatzak 5

Arabako Erriberako dantzak

Arabako Erriberako dantza sorta bat irakatsiko du Gasteizko Udal Folklore Akademiako eta Indarra dantza taldeko irakasle talde honek. Hain zuzen ere Guardiako dantzak, Villabuenako makil-dantzak, Eltziegoko dantzak eta Ekorako bercijanako kate-dantza erakutsiko dituzte.

Eltziegotik irailaren 8ko Ama Birjinaren jaian egiten diren dantzak ekarriko dituzte. Gerra Zibilaren aurretik utzi zitzaion dantza egiteari Eltziegoin, eta ondoren Sección Femeninak berreskuratu zituen. Harrezkero 8 emakumek eta katximorroak dantzatzen dituzte. Guardiatic San Juan degollaoren omenez egiten diren dantzak ekarriko dituzte. Villabueñan 50eko hamarkadak berreskuratu ziren makila-dantzen sortatik zenbait ale ikasteko aukera izango da. Eta azkenik, Ekoran, Bercijanako Andre Mariaren omenez dantzatzen den kate-dantza ikasteko parada izango da.

Jon Fernandez, Pedro Eloseg, Amagoia Eguiluz eta Elena Gonzalez de Artaza

Eskarmentu handiko dantza-irakasle eta musikariak dira Arabako Gasteizko irakasle talde laukote hau. Jon Fernandez bai Folklore Eskolan eta bai Indarra dantza taldean aritzen da irakasle lanetan. Pedro Eloseg Udalaren Folklore Eskolako koordinatzailea da, eta eskola horretan bertan irakasle aritzen da Elena Gonzalez de Artaza. Amagoia Eguiluz Indarra dantza taldeko irakaslea da.



Arabako Erriberako dantzak

Jon Fernandez, Pedro Eloseg, Amagoia Eguiluz, Elena Gonzalez de Artaza
Gasteizko Udal Folklore Akademia eta Indarra Euskal Kultur Elkarte

Gasteizko Udal Folklore Akademia

Gasteizko Udal Folklore Akademia 1991an sortu zen. Lou Flagel beljickarra Donostian ospatu ziren folklore jardunaldi batzuetan entzuteko aukera izan zuten eta Beljikan funtzionatzen zuen Dantza Etxeen ereduari oinarrituta abiatu zen Akademia Gasteizen. Dantzaren alderdi ludikoa indartu eta dantza gozatzeko aukera eskaintzeko asmoa izan da bere ibilbidean. 700 ikaslelik gora ditu eskolak eta dantza plazan egitarauarekin dantza Gasteizko kaleetan normalizatu dute. Irakasleen etengabeko prestakuntzarako eta ikasketarako jarrerak erreferentzia bihurtu du Gasteizko Udal Folklore Akademia.

Indarra Dantza Taldea

Indarra Euskal Kultur Elkarte 1973. urtean sortu zen Gasteizen. Elkartearen baitan dantza taldea, musika taldea eta inauteri taldea biltzen dira. Arabako dantzen bilketa, ikerketa eta dibulgazio lanetan zuzen-zuzenean aritu den taldea da, eta besteak beste talde hau arduratu zen 1987an Eltziegoko Gaiteroen doinuekin argitaratu zen “Arabako Dantzak” diskan jasotako azalpen testuak prestatzeaz. Arabako dantza tradizionalei dagokionez erreferentziazko iturria da Indarra dantza taldea.



Data: Ekainak 19 eta 26
Orduetgia: 10.00 – 13.00
Lekua: Dantzagunea
(Arteleku -Kristobaldegi, 14. Txomin Enea, Donostia)
Ikastaroaren prezioa: 25€
Izena emateko epea: Ekainak 7

Dantzarako gorputzaren prestaketa

Gorputza da dantzarako erabiltzen dugun tresna, eta tresna hori ondo prestatu behar izaten da, minik hartu gabe etekin handiena ateratzeko. Gorputza etengabe landu beharra dago, dantza egiteko eskatuko dizkiogun mugimendu guztiak egiteko prest egon dadin eta baita mugimendu horiek egiteko indarra, malgutasuna, erresistentzia, oreka, kontrola eta kontzientzia izan ditzagun. Jakina, bi egunetan ezinezkoa da dantzarako gorputza behar bezala prestatzea. Hori egunero-egunero lana da. Baina gutxienez gorputzaren prestaketa egoki baterako irizpide batzuk eta euskal dantza tradizionalean ditugun beharrei begira egokiak izan daitezkeen ariketa batzuk ezagutzeko aukera izango dugu Josu Mujikarekin egingo ditugun bi saio hauetan.

Josu Mujika (Elgoibar, 1958)

Dantzarria, dantza irakaslea eta koreografoa da Josu Mujika. Dantza klasikoa eta garaikidea profesionalki landu ditu eta euskal dantza tradizionala ere hurbiletik ezagutzen du Elgoibarko Haritz dantzari taldean aritua baita. Majisteritza ikasketak burutu ondoren Bruselan, Maurice Bejart-en Mudra eskola entzutez egin zituen dantza ikasketak. Donostiako Kontserbatorioan dantzako titulua eskuratu zuen eta Dantzaren Goi Mailako Lizentziatura eskuratu du. Profesionalki aritu da dantzari lanetan besteak beste Beljikan, Italian eta Frantzan, eta azken 20 urteotan hainbat koreografia sortu ditu bere proiektu zein besteen ekizpenetarako. Telebista eta Zinemarako dantzari, koreografo eta aktore lanak egin ditu. Irakasle eskarmentu handia du, Biraka Dantza Elkarte sortu eta gidatzen du, eta Dantzaz konpainiako dantzariak prestatzen aritzen da.



Dantzarako gorputzaren prestaketa

Josu Mujika

